



ONDARROAKO
EMAKUMEENTZAKO
JABEKUNTZA ESKOLA
2016-2017



MATRIKULA EGITEKO informazioa:

Ikastaro bakoitzaren prezioa: **5-10 €**. Oinarrizko errenta jasotzen dutenek eta 20 urtetik beherako gazteek, ostera, %50eko deskontua izango dute.

Plaza-kopurua:

talde bakoitzeko, gutxienez, 7 lagun. Ikastaro bakoitzeko lagun-kopurua bete ahala itxi egingo da matrikulazioa; bestela, ikastaroa hasi arte egin daiteke matrikula.

Izena emateko:

matrikula-fitxa bete eta ordainketa egin behar da. Goizetan, Udal Diru-Bilketa bulegoan (Kantoipe 3an) egiteko aukera egongo da, eta arratsaldeetan, **Etxelilan** (Artibai 3, 2. pisua). Matrikula ez da onartuko matrikula-fitxa bete eta ikastaroa ordaindu arte. Eta behin matrikula eginda, baja emanez gero, ez da dirurik itzuliko.

Emakumeentzako Jabekuntza eskolako ikastaroak ETXELILAN egingo dira. Bertara hurbildu matrikula egiteko eta informazio gehiago jasotzeko.

HAURTZAINDEGI ZERBITZUA:

TXIRRIMORRASKI. Haurtzaindegi zerbitzua eskainiko da ikastaro guztietarako. Ezinbestekoa da zerbitzu hori beharko duzuela guri jakinaraztea astebete aurretik

GAIKA

FEMINISMOA

EMAKUMEEN OSASUNA

KULTURA BIRDEFINITZEN

MUNDUKO EMAKUMEAK ELKARTASUNEAN
ETA ELKARTRUKEAN

EMAKUMEEN NORTASUNA ETA SUBJEKTIBOTASUNA



AUTORETRATU TAILERRA

Egutegia: **Azaroaren lehen astean, egun zehatza zehaztuko da.**

Antolatzailea: **Boga-Boga elkarte**

2 orduko saio bat

azaroa 2016

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

Irakaslea:

AMAIA CABERO SAIZAR.

Arte ederretako ikaslea.

Ikastaro honen helburua identitate indibidual zein kolektiboa lantzea da; horretarako “collage” teknika erabiliko dugu eta norbere zein taldearen autorretratuak egingo ditugu.

KULTURA BIRDEFINITZEN

SORKUNTZA ARTISTIKORAKO TAILERRA

Egutegia: **eguaztenetan, azaroaren 16tik otsailaren 22ra**

Ordutegia: **18:00etatik 20:00etara**

Laguntzailea: **7 Emakume en Movimiento elkarte**

25 ordu, 2 orduko 12 saio • Matrikula: 10 €

Irakasleak:

DEIENE GARCIA IRAGORRI.

Gratuondoa Barne Diseinuan eta Diseinu Sozialean Masterra. Egun, barne diseinuko bere estudioan ari da lanean.

NEREA UNANUA OTXOANTESANA.

Arte Ederretan Lizentziatua eta Pinturan Masterra. Bere lan artistikoak kaosa eta zoria ditu ardatz, Bilboko estudio batean garatzen du bere jarduna.

Artea herriaren nortasunaren adierazgarri da eta pentsamendu aniztasuna bultzatzeko eta eraldaketa pertsonal zein sozialak ulertzen eta adierazten laguntzeko balio du. Ikastaro honen helburua nagusia da emakumeen presentzia bermatzea sorkuntza artistikoan. Teknika berriak ulertu eta barneratu ondoren, sorkuntza erabiliz emakumeen errebindikaziorako eta autonomiarako. Zer egingo dugu? Tailer honetan baldosa hidraulikoak egiteko teknika ikasteaz gain, herriko pareta bat, 2x3 metroko mural batez apaintzeko proiektua garatuko dugu, baldosen diseinuaren bidez, Ondarroako Emakume artista baten omenez: Bittore Laka.

azaroa 2016

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

abendua 2016

		1	2	3	4	
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

urtarrila 2017

					1	
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23/30	24/31	25	26	27	28	29

otsaila 2017

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28					

BAI, MAITE DUT NEURE BURUA

Egutegia: **hilean behin, eguenetan: azaroak 17, abenduak 15, urtarrilak 26, otsailak 23 eta kale antzerkia martxoak 8**

Ordutegia: **17:00etatik 20:00etara**

12 ordu, 3 orduko 4 saio • Matrikula: 5 €

Gazteleraz izango da

Irakaslea:

MAY SERRANO.

Bere buruaren jabe eta emakume. Ezkontzagin eta sortzaile eszenikoa. Erailketa matxistak salatzen Women in black kale ekintzen sortzaileetarikoa bat.

Gogoetarako gonbidapen bat da tailer hau, geure buruaren jabe izatera eramango gaituen bitartekoa, gure buruari eginiko galdera bat: zein da gure tokia gure bizitzan?; eta beste galdera bat, aldiz, jendarteari zabaltzeko: maitasun erromantikoaren idealizazioari buruz. Ikastaroak bi zati izango ditu: lehenengoan, aipatutako gai horiek jorratuko ditugu; eta bigarrean, berriz, ekintza bat burutuko dugu jendaurrean, kale antzerkia: ezkontza bat, nor bere buruarekin ezkontzeko! Ekintza soil bat gure konpromisoa adierazteko, geure buruarekiko maitasuna publikoki agertzeko modu bat “Bai, maite dut neure burua!” eta, era bat, baita ere jendartean nagusi den maitasun erromantikoaren irudiaren gaineko eztabaida hasteko.

TALLER ¡SÍ, ME QUIERO! Es una invitación a la reflexión, una acción que nos lleva a convertirnos en dueñas de nosotras mismas, a cuestionarnos qué lugar ocupamos en nuestra vida, una pregunta abierta a la sociedad sobre la idealización del amor romántico. El taller constará de dos partes: en una primera parte se trabajarán temas antes citados, y en una segunda parte realizaremos un acto público: ¿nos casaremos con nosotras mismas! La acción ¡Sí me quiero! con la intención de mostrar nuestro compromiso de amor con nosotras mismas públicamente y al mismo tiempo abrir un debate sobre el modelo de amor romántico que impera en nuestra sociedad.

azaroa 2016

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

abendua 2016

			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

urtarrila 2017

						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23/30	24/31	25	26	27	28	29

otsaila 2017

			1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12	
13	14	15	16	17	18	19	
20	21	22	23	24	25	26	
27	28						

martxoak 2017

			1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12	
13	14	15	16	17	18	19	
20	21	22	23	24	25	26	
27	28	29	30	31			

HATS BIZIGARRIA. NIGANATZ BIDEA- ARNAS TERAPIA ETA IRAKASKUNTZA

Egutegia: **Azaroaren azken astean, aurrerago zehaztuko da**

Antolatzailea: **Boga-Boga elkarte**

azaroa 2016

1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30

Irakaslea: IDOIA ALBERDI ETXARRI.

Donostiako “Middendorf” Hats Bizigarriaren eskolan formatua.

Arnasketa saioaren funtsa gure arnas propioarekin, hau da, gure hatsarekin lehen kontaktu bat izatea da. Ariketa erraz eta atsegin batzuen bitartez, gure gorputza esnatu eta beste modu batera ezagutu eta biziko dugu. Ondorioz, burua baretu eta garbitu, bizi-poza eta alaitasuna piztu, arintasuna lortu eta ondo pasatuko dugu. Saioa aulkietan burutzeko aukera egongo da, bakoitzaren mugikortasunera moldatuz.

*Arropa eroso eta eramatea gomendatzen da eta galtzerdi lodiak ekartzea, nahi izanez gero (ez derrigorrez), normalean zapata barik egiten dugu lan eta.

EKONOMIA FEMINISTA. BIZITZA ETA KAPITALAREN ARTEKO GATAZKA BISTARATZEN

Egutegia: **Urtarrilak 20 eta 21**

Ordutegia: **Barikuan, 17:00etatik 21:00etara, eta zapatuan, 10:00etatik 14:00etara**

8 ordu. 4 orduko 2 saio • Matrikula: 5 €

Irakaslea: UZURI ABOITIZ HIDALGO.

Antropologoa, Emagin elkarteko kide eta ekonomia feministan aditua.

urtarrila 2017

						1	
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30	31						

Ekonomia feminista ikastaro honen bitartez, generoak duen dimentsio sozioekonomikoan sakonduko dugu. Emakumeak eta gizonak ekonomian kokatzeaz haratago, feminitatea eta maskulinitatea ekonomian nola eraikitzen diren ikusiko dugu. Bizitza prekarioetatik bizitza gozagarrietara salto egiteko lehen pausuak emateko tailerra dugu hau. Egunerokotasunetik ekonomia eraldatu dezakegulako. Bakarkako ariketa praktikoak, taldeko ariketak eta eztabaidetan oinarritzen da tailerra.

FEMINISMOA

GURE BAITAKO UMEA ONARTZEKO TAILERRA

Egutegia: (barikuak) urtarrilak 27, otsailak 3 eta 10

Ordutegia: 17:00etatik 20:00etara

9 ordu, 3 orduko 3 saio • Matrikula: 5 €

Gazteleraz izango da

Irakaslea: PATRICIA VERDÉS GIMÉNEZ.

Psikologoa eta berdintasunean aditua.

Tailer honetan aukera izango duzu zure baitako neskatoa zeureganatzeko eta horrekin batera ezerezean geratuko zaizkizu mundu patriarkal bateko neskatoa izateagatik eduki zenituen eskakizunak. Berreskuratuko duzu sentikortasuna, zure benetako izatea, gaurkotu egingo dituzu iraganean finkatutako ideia eta emozio haiek balio ez dizutelako jadanik; eta, neska askeak nola, halaxe gozatuko duzu berriro ere jolasean, plazer hutsez, zeure burua zikintzen eta esploratzen. Horrela bada, zaindu ahala behinola izan zinen neskato hori, zure baitan dagoen hori, zaindu egingo duzu zure burua ere.

TALLER: ACOGER A NUESTRA NIÑA INTERIOR Cuando podemos acoger a nuestra Niña Interior caen las exigencias que tuviste por ser niña en un mundo patriarcal; recuperas y cuidas lo más vulnerable y auténtico de ti; actualizas las creencias y emociones que se fijaron en tu pasado y ya no te sirven; y recuperas el placer de jugar, mancharte y explorar a la manera de las niñas libres... Así, al cuidar a tu niña, la que fuiste y permanece en ti, te cuidas.

urtarrila 2017													
							1						
2	3	4	5	6	7	8							
9	10	11	12	13	14	15							
16	17	18	19	20	21	22							
23/30	24/31	25	19	27	28	29							

otsaila 2017													
6	7	8	9	10	11	12							
13	14	15	16	17	18	19							
20	21	22	23	24	25	26							
27	28												

ESTATU FEMINISTA ETA FEDERALA ERAIKITZEN

Egutegia: **martxoak 24 eta 25**

Ordutegia: **Barikuan, 17:00etatik 21:00etara,
eta zapatuan, 10:00etatik 14:00etara**

8 ordu, 4 orduko 2 saio • Matrikula: 5 €

Irakaslea: JULE GOIKOETXEA MENTXAKA.

EHU-ko irakasle eta ikerlaria.

martxo 2017

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

Zer da estatua? behar al dugu? nork pentsatu izan ditu estatua eta haren funtzioak? ze helbururekin sortzen dira estatuak? ze estatu mota daude egun (unitarioa, federala, konfederala, asoziatua...) eta zein motatako estatua nahi dugu (zer da ongizate estatua? eta ongizate estatu motak). Nahi al dugu estaturik? Zergatik? Galdera hauek erantzuteko zientzia politikoaren oinarrietara joko dugu: zer da politika, zer da legitimitatea eta menderakuntza, zer da biolentzia, gatazka eta zeri deitzen diogu bakea, biolentzia al da jendartea? eta familia? zergatik? Zer da biolentzia sinbolikoa eta zergatik ez da sekula gatazka bukatuko? Helburuetako bat: zer gatazka nahi ditugu sortu eta politizatu eta nola kontrolatu jada baditugunak (estatuaren bidez, familiaren bidez, kapitalaren bidez, polizia, bigilantzia, diziiplina, diskurtsoaren bidez...?).

FEMINISMOA

SEXUALITATEA, EDERTASUNAK ETA TRATU ONAK

Egutegia: **eguztenak, apirilaren 26tik maiatzaren 24ra**

Ordutegia: **17:30etik 20:00etara**

12 ordu, 2 ordu ta erdiko 5 saio • Matrikula: 5 €

Irakaslea: EDURNE MENDIZABAL.

Sexologoa eta generoan aditua, Arremanitz taldeko kidea.

EMAKUMEEN NORTASUNA ETA SUBJEKTIBOTASUNA

Sexualitateak, edertasunak eta tratu onak landuko ditugu ikastaro honetan. Sexualitatea pertsonen bizitzako dimentsio garrantzitsua da oso: gorputza, bizipenak, plazerak... barnebiltzen dituena.

Sexismoak sexualitateetan duen eragina aztertuko dugu eta emakumeon sexualitateetaz arituko gara; norberarena ezagutzen eta baloreen jartzen lagunduko diogu elkarri. Zentzu honetan, alde batera utziko dugu jendartearen indarrean dagoen edertasun eredu zurruna, ederra zer den eta zein den esaten digun hori, eta ederrak guztiok gairela sentituko dugu.

Hau guztia tratu onen eta feminismoen ikuspegitik, guztiok merezi dugu-eta tratu on bat.

apirila 2017														maiatza 2017						
							1	2						1	2	3	4	5	6	7
3	4	5	6	7	8	9								8	9	10	11	12	13	14
10	11	12	13	14	15	16								15	16	17	18	19	20	21
17	18	19	20	21	22	23								22	23	24	25	26	27	28
24	25	26	27	28	29	30								29	30	31				

INDARKERIA MATXISTA KONTSUMITZEN AL DUGU?

Egutegia: **maiatzak 19 eta 20**

Ordutegia: **Barikuan, 17:00etatik 21:00etara,
eta zapatuan, 10:00etatik 14:00etara**

8 ordu, 4 orduko 2 saio • Matrikula: 5 €

Irakaslea: **SETEM HEGO HAIZEA**

GGKE, genero ikuspegia oinarri hartuta, ekoizpen, kontsumo eta finantza-eredu iraunkorrakoak, bidezkoagoak eta arduratsuagoak helburu dutena.

maiatza 2017

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

Ikastaroan bi arlo ezberdin landuko dira. Alde batetik, aztertuko dugu kontsumoak eta kapitalismoak nola areagotzen duten ohiko genero estereotipoen eraikuntza (iragarkiek, adibidez) eta beste alternatiba batzuei bidea zabalduko diegu: kapitalismoaren bidetik zein pertsonen aniztasunaren bidetik. Beste aldetik, etxeko produktuen, estetika elementuen eta bestelako arloetako kontsumoa ikertu ostean, kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzailearen arloan ikuspegi feminista batetik lan egiteko bideak zabalduko dira. Zentzu horretan, pertsona fisikoek nahiz gizarte-erakundeek ikastaro honetan galdera eta erantzun lagungarri batzuk aurkituko dituzte, batetik, beren kontsumo-jokabide eta ohiturak analizatzeko, eta, bestetik, indarkeria matxistarik gabeko kontsumo eredua bultzatzeko jarraibideak izateko.

KONPLEXURIK GABE. NOLA TXERTATU ZAHARTZEA GURE AGENDA FEMINISTAN?

Egutegia: **ekainak 3**

Ordutegia: **zapatuan, 10:00etatik 14:00etara**

4 orduko saio 1 • Matrikula: 5 €

ekainak 2017

	1	2	3	4
5	6	7	8	9
10	11	12	13	14
15	16	17	18	19
20	21	22	23	24
25	26	27	28	29
30				

Irakaslea: MARI LUZ ESTEBAN.

EHUko irakasle eta ikertzailea.

Zahartzea zer den hausnartuko dugu, eta honek dakartzan (edo ekar ditzakeen) aldaketak eta alternatibak, bai bizitzan, oro har, bai jardun sozial eta politikoan ere.

FEMINISMOA

PARTE-HARTZE GUNEAK

Ondarroako Emakumeentzako Jabekuntza Eskolak ez du eskola hutsa izan nahi, parte-hartze gunea baizik. Horregatik zabalduko ditugu gune batzuk eta parte hartzera animatzen zaituztegu. Gune ireki hauetan interesa baduzu, Etxelilan eskatu informazioa.

Hitzaldia: **“EMAKUMEEN OSASUN INTEGRALA ETA KIROLA: BERDINTASUNA LORTZEKO ERRONKAK”**

Hizlaria: AINHOA AZURMENDI.

Kirol aholkularia eta berdintasunean aditua.

Egutegia: **urriak 5 (eguztena).**

Ordutegia: **19:00etan.**

ARINGAINGAN LILATOIRE

Dinamizazioa: ARANTZA BURGOA.

Irakaslea eta kirolzalea.

Ainhoa Azurmendiren laguntzari esker aukera izango dugu, alde batetik, ikusteko nola islatzen diren jendarteko desberdintasunak kirol arloan eta, bestetik, hausnarketa egiteko desberdintasunek emakumeen kirol jardueran izan duten eta egun duten eraginaz. Hitzaldiaren ondoren, parte hartze gune ireki bat sortuko da aringa-aringa egiteko aukera zabalduz. Gune honetan parte hartzeko ez da ezinbestekoa maila jakin bat izatea, edozeinek ahal du parte hartu, irekia da, eta entrenamendu pertsonalizatuak eskainiko dira dinamizatzailearen eskutik.



LITERATURAZ EZTABAIDATZEKO GUNEA

Hasiera data: **azaroak 12 (zapatua), 10:00etan**

Hilean behin (azken barikuetan), eta eskolako ikasleek bultzatuta, literatura, irakurketa eta eztabaida kritikoa ikuspegi feministatik lantzeko saioak burutuko dira.



NESKA GAZTEEN TXOKOA

Egutegia: **Zehaztu barik. Interesatuta bazaude hurbildu Etxelilara koadrila, zu zeu, albokoarekin, auzokoarekin...**

Dinamizazioa: NAGORE LARRAZABAL.

Feminista eta Ondarroako Hezkidetza egitasmoko hezitzailea.

Gure zalantzak eta kezak partekatzeko espazio falta sumatzen dugu. Zenbait problematikari buruz gehiago jakin nahi genuke. Geure burua, pertsonalki eta kolektiboki, maitatzeko espazioak ireki nahi ditugu. Feminismoan eta feminismoaz hazteko gogoz gaude. Gazte eta neska gara, egoera batzuez nazkatuta gaude eta hauen aurrean zerbait egiteko gogoa sentitzen dugu baina ezin jakin zelan aurrera eramán. Honen aurrean, txoko ireki bat sortzeko asmoz gaude: feminismoa ezagutzeko, parte hartzeko eta geure ekintza propioak eraikitzeko. Bazatoz zu ere?



**BELDUR
BARIK**

2016

iraila

			1	2	3	4	
5	6	7	8	9	10	11	
12	13	14	15	16	17	18	
19	20	21	22	23	24	25	
26	27	28	29	30			

urria

					1	2	
3	4	5	6	7	8	9	
10	11	12	13	14	15	16	
17	18	19	20	21	22	23	
24/31	25	26	27	28	29	30	

azaroa

	1	2	3	4	5	6	
7	8	9	10	11	12	13	
14	15	16	17	18	19	20	
21	22	23	24	25	26	27	
28	29	30					

abendua

			1	2	3	4	
5	6	7	8	9	10	11	
12	13	14	15	16	17	18	
19	20	21	22	23	24	25	
26	27	28	29	30	31		

2017

urtarrila

						1	
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23/30	24/31	25	26	27	28	29	

otsaila

		1	2	3	4	5	
6	7	8	9	10	11	12	
13	14	15	16	17	18	19	
20	21	22	23	24	25	26	
27	28						

martxoa

		1	2	3	4	5	
6	7	8	9	10	11	12	
13	14	15	16	17	18	19	
20	21	22	23	24	25	26	
27	28	29	30	31			

apirila

					1	2	
3	4	5	6	7	8	9	
10	11	12	13	14	15	16	
17	18	19	20	21	22	23	
24	25	26	27	28	29	30	

maiatza

1	2	3	4	5	6	7	
8	9	10	11	12	13	14	
15	16	17	18	19	20	21	
22	23	24	25	26	27	28	
29	30	31					

ekaina

		1	2	3	4		
5	6	7	8	9	10	11	
12	13	14	15	16	17	18	
19	20	21	22	23	24	25	
26	27	28	29	30			





Informazio gehiago jasotzeko:

ETXELILA emakumin topaleku

Ordutegia: arratsaldez, matitzenetik barikura

Artibai 3, 2. solairua ☎ 946 134 008

etxelila@ondarroakoudala.net



ETXELILA
Emakumin Topaleku

Ondarroako Udal Berdintasun saila



Ordutegia:

goizez, astelehenetik barikura

Musika plaza z/g ☎ 946 833 670

emakume@ondarroakoudala.net

<http://www.ondarroa.eu>



Berdintasuna Ondarroa

